

**Complicité Chimères elkarte**  
**Chimères antzerki taldearen sustengu taldea**  
**64200 Biarritz**  
**complicechimeres@orange.fr**

### **Prentsa agiria**

Chimères antzerki taldea sustengatzen duen Complicité Chimères elkarteak publikoki hitza berriz hartzen du Chimères taldeak erabiltzen duen *les découvertes* lan egoitza kolektibitate publikoak beregain hartu behar duela adierazteko.

Antzerkizale amorratuak, Chimères antzerki taldearen jarraitzaile sutsuak, konpania horrek kudeatzen dituen tailer amaturretan gutarteko ainitzek antzerkia egiten dugula, *les découvertes* aretoan bereziki, sorkuntza eta formakuntza artistiko eremu horrek daukan kultur interes handiaren zuzeneko lekuko gara.

600m2 dituen egoitza hori, Biarritzeko Maréchal Juin etorbideko 75 helbidean kokatua dena, Charles Barran Etxe Sozietate Zibilak kudeatzen duen jabego pribatua da. Badu 27 urte Chimères antzerki taldeak alokatzen duela. Egoitza horren alokamendu sariak aspalditik kargatzen du Chimères taldearen aurrekontua.

Complicité Chimères elkarteak ozenki berriz adierazten du areto hori **Interes Publikoko Antzerki eta Arte Etxe** bat bilakatua dela besteak beste arrazoi hauengatik :

- 27 urtez, areto horretan, ehunka artistek, talde profesionalek egonaldiak egin dituzte, beren aitzin-lanak edo ikuskizunak aurkeztu ;
- Gune hori milaka ikuslirrek, jokolari amaturrek izan haur, gazte, heldu, ikasetxeetako, inserzio klaseetako, antzerki opzioetako ikaslek, osasun munduko langile eta pazienteek erabili izan dute ;
- Translatines, Temps d'aimer festibaletako edo Biarritz Culturek antolatutako ikuskizun batzuk aurkeztuak izan dira leku horretan ;
- Maurice Ravel kontserbatoria (antzerki kurtso batzuentzat) edota Akitania Hegoaldeko Ezena Nazionalea (Ikusliarraren Eskola, Tailer Handiak) bezalako erakundeek noizbehinka erabiltzen dituzte areto horrek eskeintzen dituen ahalbide egokiak ;
- 100 000€ko diru publiko kopurua inbertitua izan zen 1995-1996ko urteetan, egoitzaren berritze eta antolatze obra handi batzuk egin ziren eraikina Chimères antzerki taldearen betebeharrei egokitzeko ;
- 27 urtez, kasik milio bat euro alokairu isuri ditu Chimères taldeak jabeari ; jakina dirutza horren zati bat taldearen ibilmoldea parte batentzat ahalbidetzen duten laguntza publikoetan hartua da.

Interes eta ezinegonez beterik, azken hiru urte hauetan jabea (Charles Barran Etxe Sozietate Zibila), Chimères antzerki taldea eta Euskal Hirigune Elkargoaren artean hasiak diren solasketak ezagutzen eta hurbiletik jarraitzen ditugu. Ahal bezain laster ondorio ona izanen dutela igurikatzen dugu, Complicité Chimèresek 10 urtez adierazi eta argudiatu duen bidetik, Euskal Herriko Kolektibitate Publikoak beregana dezan *les découvertes* aretoa hain zuzen. Hots, gune horren antzerti eta artistiko sorkuntza gaitasuna ezagutua eta behin betiko finkatua izan dadin eskatzen dugu, jakinez Chimères antzerki taldeari esker, lurraldearentzat interes publikoko kultur eremua bilakatua dela.

Badakigu eta horretaz pozten gara, Chimères konpaniak sasoi berri emankorra hasi berri duela, jarduera eta egitasmoz aberatsa.

Complicité Chimères elkarteak Chimères antzerki taldearen sustengatzen segituko du, bereziki *les découvertes* aretoaren geroari buruz erabat mobilizaturik geratuz. Dossier horren segidaz publikoa jakinean atxikitzea hitzematen dugu, horretarako irudiko zaizkigun molde egokienak baliatuz.

Complicité Chimères  
2022ko azaroa